

## Prentsa Oharra

### **Merkatarientzako eta ostalarientzako euskara ikastaroetan izena emateko epea zabalik otsailaren 2ra arte**

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, hiriko merkataritza eta ostalaritza elkarte eta erakundeekin lankidetzan, urtean bitan antolatzen ditu gremio horietako profesionaleri zuzendutako euskara-ikastaroak. Ikastaro espezifikoak dira, 60 ordukoak (otsailetik ekainera) 60 euroan, eta otsailean hasiko direnen izen-ematea **otsailaren 2ra arte** zabalik egongo da.

Bezero euskaldunak arreta hobea izatea da helburua eta, horretarako, euskara ikasten hasiera edo euskara maila hobetzeko ikastaroak eskaintzen dira. Ikastaroak hiriko euskaltegietan gauzatuko dira ([AEK](#), [Ilazki](#), [Hitzez](#), [Legazpi 6](#), [Urrats](#) eta [Urumea](#)). Hainbat ikastaro mota daude:

#### • I Modulua

Helburua: zerbitzua euskaraz ematen hasteko oinarritzko komunikazio-gaitasuna lantzea.

#### • Jarraipen moduluak

Helburua: hizkuntza oinarriak eta edukiak finkatu eta osatzen joatea ulermenerako nahiz komunikaziorako gaitasuna hobetzeko.

**Izen-ematea:** Urtarrilaren 21etik otsailaren 2ra

**Izen-ematea** [on line](#)

**Izen-ematea** erakunde horietako egoitzetan:

- **Udaleko Euskara Zerbitzua:** Konstituzio plaza 2, behea
- **Gipuzkoako Merkatarien Federazioa**
- **San Sebastián Shops**
- **Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte**

INFORMAZIO GEHIAGO